

Rikardo Arregi hil zela 25 urte



JOAN MARI TORREALDAI

IRITZIA



Rikardo Arregi gogoan

Bai, 25 urte hauetan sarri, oso sarri, izan dut Rikardo gogoan. Honen maisua izan zen Karlos Santamariarekin biltzen naizenetan Rikardo aipatu gabe ez dugu sekula solasaldirik amaitu.

Rikardo Arregi, niretzat, leader erakargarria izan da, eragile bizia, langile nekazina, lankide leiala eta exigentea. Irakurria zen oso, buru argia eta antolatua, han eta hemen jasotakoa asimilatze-ko ahalmen handikoa, formula-tzaile aparta. Haren inguruan ibili izan ginenok biziki miresten genuen. Ez dago esaterik hark utzitako zuloa zein sakona den.

Karlos Santamariarekin sarri-sarri Rikardo mintzatzen garelara esan dut. «Hura zen gizona, hura» esanez hasten gara, eta geure buruari zera galdetuz bukatzen: biziko balitz, non ote legoke gaur Rikardo? Ez gara sekula ausartu erantzunik ematen. Nola jakin non legokeen gaur Rikardo bere belaunaldiaren paraderoa ikusita? Gerraosteko lehen belaunaldiaren, 1956ko belaunaldiaren, udazken honetan zaila da asmatzea zein izan zitekeen Rikardoren traiektoria, haren garaikideen geroko bide desberdinak ikusirik.

Gure belaunaldiaren mito bihurtzeko dena du aide Rikardok.

Pertsonen eta zibilizazioen udaberriaren kokatzen dira mitoak. Rikardo gazterik hil zenez (27 urte betetzeke) fresko-fresko gelditu da jendearen gogotan. Eta 1956ko balaunaldi hura hasierako fasean zegoen urte horietan, gazte, emankor, bizi-bizi. Borroka guztiak bat etzizirenean elkar osatzaile ziren: politika, kultura, hizkuntza, literatura, alfabetatzea, kazetaritza. Eremuen, borrokan diferentziatzea, dibertsifikazioa, elkarrengandik urruntzea, elkarri kontrajartzea... guzti hori gerokoa da. Rikardok ez zuen geroko garai hori ezagutu. Gure belaunaldiaren udaberriko ereduak da Rikardo Arregi: Apaizgaitegitik pasea. Espainiako diktaduraren aurka eta Euskal Herriko tradizionalismoa gainditu nahian, Europako eta munduko aireei buru eta bihotzez irekia, berrikuntza ideologikoez il-luratu, euskara eta euskal kultura desaroilopetik ateratzeko borrokan, nazio-arazoa eta gizarte-arazoa elkarlotzeko ahaleginetan... guzti hori 1956ko belaunaldiaren definitzaile den neurrian gure ispilu da Rikardo.

Kultur bizialdi laburra du Rikardok: zazpi urte, 1963tik 1969 bitartekoa. Harrigarri gertatzen da horren denbora gutxian zenbat proiektu buruan eta zenbat lan eskuartearen izan zuten: alfabetatzea, herriz herriko hitzaldiak, Zeruko Argia, Jakin, editorial-gintza, Idazleen Elkarte, etabar. «Gogoan» dudana Rikardo ai-

patu nahian abiatua naiz eta «gogoko» dudana Rikardoz jarraitu dut. Rikardoren bi alderdi nabarmendu nahi nituzke, bukatzeko: Rikardoren saiolaritza eta Rikardoren kazetaritza.

Rikardoren saiolaritza. Gure belaunaldiaren abiapuntua ulertzeko oinarri-oinarrikoak dira Rikardoren saiok, adibidez, 'Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu', 'Sozialismoa modan dago' eta 'Ezkerriak berriak'. Ara-zoak, bizi-biziak (eta minga-riak) gordin plazaratzeko ausardia izan zuen. Arazoak ez ziren bereak (bakarrik), garaiko gazteenak baizik, baina Rikardok beste inork baino hobeto formu-latu eta planteatu zituen.

Rikardoren kazetaritza. Hiru mila joalditako artikulutan maisu zen Rikardo. Literato eta gramatikariaren erreinuan, Rikardoren estiloa kontrapuntua da: estilo zuzen-zuzena, biluzia, zehatza, bizia, artez gaira doana; euskararen eskasia eta guzti. Eta zentsuraren inperioan, gauzak esatea lortzen du, lerro artean irakurtze-koak izanik ere; bere pentsaera osorik adierazten du, zeharbidez bada ere; euskal tematikaz dihardu etengabe, kanpoko gertakariaren erreferentzia bada ere. Irakurlearekin konplizitatea bilatzen du Rikardoren kazetari-tzak. Ez dakit non legokeen Rikardo gaur egun. Dakidana da, Rikardo bizirik, euskal kultura jasoago, indartsuago eta egitu-ratuago legokeela.

Gogoeta apurrak

'Zeruko Argia-n' eta 'Jakin-en' argitaratutako iritzi artikulua eta saiakera ugariengatik nabarmendu zen Rikardo Arregi kazetaritza. 'Zeruko Argia-n' argitaratutako artikulua zatiak bildu zituen Joan Mari Torrealdaik 'Herriaren Lekuko' (Jakin, 1972) liburuko 'Gogoeta apurrak' atalean. Bilduma horietatik aukeratu ditugu ondoko apurrak.

• Nik ez dakit dominikano errebolutuak zer diren, marxistak ala katolikoak, erreformistak ala erreboluzio-zaleak. Dakidan bakarra da, justiziagatik beren bizia ematen dutela, eta hori aski dut adiskidetzat izateko»
1961-VI-16

• Badakit, gure arteko askorentzako, partidu politikoa bekatu dela, baina pentsamendu horiek uxatzeko garaia badela uste dut»
1963-VI-2

• Abertzaletasun beroenak ere ez du ezertarako balio askatasuna ez den bitartean».
Zeruko Argia, 1963-IX-29

• Beti da arriskuzkoa historiarekin jokatzeko, amets gehiegitararen eramanen gaituelako».
1963-X-17

• Referendum huts hutsa ez da herriaren iritzia jasotzeko biderik egokiena. 'Bai' eta 'Ez-aren' artean beste iritzi asko izan daitezke»
1964-II-2

• Bakea beharrezkoa da, eta gizarteak izan dezakeen gauzarik hobere-na. Baina bakeak ez du esan nahi gauzak dauden bezala, ukitu gabe, uztea».
1964-II-23

• Zoritxarrez, Jainkoa eta erlijioa gehiegi nahastu ditugu politikan; gehienetan, gainera, injustizia eta berekoikeria defenditzeko»
1965-II-10

• Denek herriaren izenean hitzegiten dutenez gero, herriari berari galdetzea ea zer derizkion. Hori da demokrazia. Behetik gora doana, ez bestea».
1965-II-28

• Errealitatek gabeko idealismo batengan sinestea, gaiso egotea bezala da, izpirituz gaiso egotea bezala»
1965-IV-18

• Europa denontzat itxaropen bat da, baina gure gaitzak, Europari begira egonda, ez dira sendatuko. Ez dezagun pentsa, hemen konpon-du behar direnak, kanpora begira egonik, konponduko direnik»
1965-VII-25

• Bakezaletasuna xalagarria den bezala bakezalekeria da baztertu beharrekoa. Bakearen izenean merkantzia asko saltzen da-eta. Eta bakeak, besterik gabe, ez du sentidurik».
1968-IV-21

• Herri bakoitzak, nazio bakoitzak nahiz eta bere nortasuna gorde, mundu guzikoak herri bat, nazio bat osatzen dugu».
1969-VII-12

IRITZIA

PAULO IZTUETA



Euskal kulturaren eragile

Rikardoren izena aipatu di-daten bezain laister, Brin-kolako herritxoa etorri zait gogora, 1959an edo, hantxe egin bai-kenituen elkarren ezagutzak Arantzazura Jakinariaren bilerara eramango gintuen autobusen zain geundela. Hura Donostiatik zetorren, ni Arratiako Areatzatik. Kultur kezka biterik gindoazen hara, ildo berriak irekitzera, gaz-tetasunak ematen duen ilusioz ganezka.

Eta bitartean 35 urte pasa dira, belaunaldi oso bat. Galdera hau egin zait: nola ikusten duzu ordu-ko kultur giroa eta gaurkoa?

Horrela bapatean erantzuteko, kolpeak gogor txoa badirudi ere, ETaren gizarte-fenomenoarekin hasten den 1960ko hamarkadako kultur mugimenduari eta eus-kal autonomi estatu-

tuek bideratu duten kultur plan-gintzaren artean, iruditzen zai-dantzaz, maila batean jarraipena ematen da eta beste maila han-diago batean, berriz, eten garbia. Arazoa konplexuegia da aldaketa horren zergatiak aletzen has-teko. Baina ezin da aipatu gabe utzi faktore biologikoa, azken belaunaldi honek aski definigai-tzak diren oso bestelako eskema batuekin funtzionatzen baitu. Gaurko gazte askorentzat, agian gehienentzat, frankismoa bera urrutiko kontua da. Halere, nik uste, frankismotik juancarlis-mora pasatzeak ekarri ditu alda-ketarik sakonena.

Rikardoren ibilbidea aurrean dudala, puntu-pare bat apzima-rutuko dut. Hainbat lekutan ida-tzi dudani jarraituz, iruditzen zait 1960ko hamarkadak ekarri zuela agian Euskal Herriak inoiz ezagutu duen euskal mugimen-durik zabalen eta aberatsena. Or-duantxe sortu zen euskal ezker-ra, anitza ideologia eta ikuspegi po-

litikoaren aldetik, baina ideia oso finkoak zeudkana maila nazio-nalean bezala sozialean. Kristau demokraziatik sozialismorako urratsa espantu handirik gabe eman zen. Marxismoak trauma gehiago suposatu zuen, baina ez-tabaida hori, batipat, 1970eko hamarkada-hasierakoa izan zen. Noski, bere garaian aztertu beza-la, bere alderdi on eta txarrekin. Bego ordukoa.

Nolanahi ere, Rikardoren omenez esan behar da, nahiz eta bere pentsamendua etengabeko eboluzioan egon, helburu batzuk oso garbi finkatuta zeuzkala po-litikaren bezala kulturaren. Maila biok sinbiosi batean elkartuta ikusten zituen eta, orohar, oina-rrizkotzat jotzen zuen euskal pentsamolde propio bat sortzea, euskal gizarte berriaren eredu-a barutik eta bere kabuz pentsa-tzeko kapaz izango zena. Honek eskatzen zuen, batetik, euskal-du helduak aldatetzea eta bestetik, euskal letrak, literatura

hutsetik harago, jakintzaz horni-tu eta maila akademikoan lehen saioak egitea. Helburu horrekin pentsatu zituen, eta bideratu, Al-fabetatze Kanpaina eta Lur argi-taletxea. Hara hori hizkuntz po-litikaren bi zutabe tink ezarriak: euskararen berreskurapena eta modernizatzea. Ezin uka egiazki ekingia iraultzaileak izan zirela.

Azken hamarkada hauetan, or-dea, orduko helburu asko jarri dira zalantzan. Eta ez naiz ari Espainiako lurraldetan gustora sentitzen diren okasioko zenbait politikari eta idazlerekin. Hauena da gutxienean. Kezkagarriagoak iruditzen zaizkit euskal kultura-ren norabidea zentzu negatiboan markatzen duten beste fenomeno batzuk. Bata da, lehen aldarrika-tzen zenaren kontra, literatura ikaragarri puztu dela eta, alde-antantz, pentsamendua lantzen duen literatura zientifikoari oso kasu gutxi egiten zaioela. Euskal literatura harro-harro esportatu dugun une honetan dago, agian,

ahulenik euskal inteligentsia. Eta ez prezeski ez dagoelako, dagoen hori etxean bertan gutxietsia de-lako baizik. Sekulako itsumena dago puntu honetan. Bestea da, euskal nortasunaren iparra galdu ez badugu, galtzeaz gaudela. Po-sibilismoak hain jarrera machia-velikoetara eramau du euskal po-litika, ezen espainolismoa janz ez baitator euskal kontzientziari geratzen zaizkion erresistentzi-gune apurrak ere. Horrela, gure barne-zatiketa guztiek, ez poli-tikagintza eta ez kulturagintza propiorik eraikitzen iritsi gara. Diogunaren historia hurbilaren lekuko dira AEK eta ikastolak. Posnacionalismoak eta posozia-lismoak badute zerbaite irabazi-rik.

Rikardorengana nator buka-tzeko: euskal gizarteak euskal inteligentsia propioa lortzen ez dueno, beti jarraituko du atze-riko pentsamenduen mo-roi izanez. Gizarte-maila guz-tietan.